



A.3.1. ROMUALDO GALDOS

A.3.1. ROMUALDO GALDÓS

Azalera: 14.558 m²

I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak

Romualdo Galdos, J. A. Gisolasa eta Armagintza Eskolaren zabalduaren atzealdeak mugatzen duten zona da. Alde batzuetan 70-80. hamarkadetako eraikinek eratzen dute, dorre erako soluzioak dituztenak eta, oro har, dentsitate handikoak. Ipuruako Jubilatutako Etxea eta Pio X.a parrokia ekipamenduak hartzen ditu.

Eremu honetarako ez da proposamen berririk eta lehendik dauden bizitegi eraikinak finkatzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordezterakoan, O-AL-AO-1, O-AL-AO-2B eta 2C "Lerrokadurak eta Sestrek. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan zehazturiko eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.